

EUSKAL KULTUR SORKUNTZA ETA KRITIKA FEMINISTA. IKERKETA, IRAKASKUNTZA ETA KUDEAKETA GRADUONDOKOA

AURKEZPENA

Euskal kultur sorkuntzara hurbiltzeko ikuspegi kritiko jakin bat jorratuko da graduondoko honetan: Kultur Kritika Feministaren jardunean trebatuko dira ikasleak. Euskal kultur sorkuntzaren ikuspegi garaikidea eta askotarikoa jorratuko da graduondokoan. Bestetik, kultur logikak eta genero-logikak harremanetan jarri ahal izateko, hainbat esparrutako adierazpideetara hurbilduko gara (arte plastikoa, arte eszenikoak, bertsolaritza, literatura, musika, komikia, zinea). Nolanahi ere, euskal kultur sorkuntzaren ikuspegi garaikide hori eskaintzeko, ibilbide historikoari ere erreparatuko zaio, eta kultur esparru bakoitzaren bilakaeraren berri emango da, betiere genero-ikuspegia zehar-lerro gisa hartuta.

Kultur bitartekaritzan diharduten hiru eragile mota elikatzea izango du jomugan graduondokoak, eta hasierako ikasgai zein moduluetan elkarrekin arituko badira ere, azken moduluan, hautazkoan, berariazko prestakuntza jasoko dute: *Ikerketa moduluan* ikertzaileak edo kultur kritikariak trebatuko dira, esparru akademikoan Kultur Ikerketak eta Genero Ikerketak uztartzeko; *Kudeaketa moduluan* kultur teknikariak edo kultur kudeatzaileak trebatuko dira, Kultur Kudeaketan genero-ikuspegia zehar-lerro bilakatzeko aukerez jabetzeko; eta *Irakaskuntza moduluan* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleei zein formazio ez-arautuan dabilzan hezitzaileei adin tarte horretako gazteak kultura ez-sexistan hezteko baliabideak eskainiko zaizkie.

ZERGATIK IKASI

- Euskal kultur sorkuntzaren ezagutzan eta transmisioan sakontzeko, betiere kulturaren ikuspegi kritikoa eta feminista garatze aldera.
- Kultur Kritika Feministan trebatzeko.
- Kultur bitartekaritzaren esparruetan (ikerketa, irakaskuntza, kazetaritza, kultur kudeaketa...) euskal kultur sorkuntza eta kritika feminista zehar-lerro bilakatzeko prozesuan ekarpena egiteko.
- Kultur ikertzaile, irakasle, kazetari eta kudeatzaile feminista eta euskaldunen sarea sendotzeko.

SARRERA PROFILA

Grada edo diplomatura duten eta kultur bitartekaritzaren edozein esparrutan (ikerketa, irakaskuntza, kazetaritza, kultur zerbitzuak, kultur politikak, politika feministak...) lan egingo duten mota askotako ikasleak onartuko dira, baita profesionalak ere.

IRAKASKUNTZA-MOTA

Erdipresentziala.

IRTEERA PROFESIONALAK

Kultur bitartekaritza edo Kultura Ikerketan prestakuntza berezitua izango duten profesionalak izango dira, genero-ikuspegia eta euskal kultur sorkuntza zehar-lerro gisa garatzeko trebakuntza izango dutenak. Beraz, ikerketa, heziketa eta kudeaketa esparruetan lan aukerak izango dituzte, profil horietako lanpostuak betetzeko.

MODULUEN EGITURA

EUSKAL KULTUR SORKUNTZA ETA KRITIKA FEMINISTA graduondokoak egitura modularra izango du. *Euskal Kultur Sorkuntza eta Kritika Feminista. Ikerketa, Irakaskuntza eta Kudeaketa* Unibertsitate Espezialista Berezko Tituluak (30 ECTS) lau moduluz osaturik dago:

– I. **modulua:** *Euskal Kultur Sorkuntza: ibilbide historikoa eta genero-ikuspegiak* (10 ECTS).

– II. **modulua:** *Euskal Kultur Sorkuntza eta Kultur Kritika Feminista: lantegia* (8 ECTS).

– III. **modulua (hautazkoa)** (6 ECTS): hiru adar hauetariko bat hautatuko dute ikasleek:

1) **A.III.** *Euskal Kultur Sorkuntza: Kultur Ikerketak eta Ikerketa Feministak.*

2) **B.III.** *Euskal Kultur Sorkuntza eta Kultur Kudeaketa: hurbilketak genero-ikuspegitik.*

3) **C.III.** *Euskal Kultur Sorkuntzaren irakaskuntza Bigarren Hezkuntzan: hurbilketak genero-ikuspegitik.*

– IV. **Amaierako Lana** (6 ECTS).

Egitura modular horrek bi unibertsitate-titulu ezberdin egituratzeko aukera ematen du. Lehen bi moduluak eginez gero *Euskal Kultur Sorkuntza eta Kritika Feminista* Aditu Titulua eskuratuko du ikasleak (18 ECTS, I. modulua eta II. modulua); hiru moduluak eta Amaierako Lana eginez gero, *Euskal Kultur Sorkuntza eta Kritika Feminista. Ikerketa, Irakaskuntza eta Kudeaketa* Unibertsitate Espezialista Berezko Titulua (30 ECTS) eskuratuko du ikasleak.

ANTOLAKUNTZA AKADEMIKOA

Zuzendaritza-taldea: Iratxe Retolaza, Amaia Serrano eta Igone Zabala.

Batzorde Akademikoa: Ibon Egaña, Haizea Barcenilla eta Iratxe Retolaza.

HARREMANETARAKO

Ainhoa Latatu (UEU)
943821426
a.latatu@ueu.eus

Iratxe Retolaza Gutierrez (UPV/EHU)
946015189
iratxe.retolaza@ehu.eus

EGUTEGIA

2019ko urriaren 25etik 2020ko uztailaren 17ra arte.

I. modulua: 2019ko urriaren 25etik 2020ko martxoaren 21era arte.

II. modulua: 2019ko urriaren 28tik 2020ko apirilaren 3ra arte.

III. modulua: 2020ko maiatzaren 4tik 2020ko ekainaren 8ra arte.

Amaierako Lana: 2020ko maiatzaren 4tik 2020ko uztailaren 10era arte.

SAIO PRESENTZIALAK

2019. urtea

Urriak 25 eta 26

Azaroak 8, 9, 22 eta 23

Abenduak 13 eta 14

2020. urtea

Urtarrilak 10, 11, 24 eta 25.

Otsailak 7, 8, 21 eta 22

Martxoak 6, 7, 20 eta 21

Martxoak 28 [jardunaldi irekiak, 9:00-14:00 // 15:30-18:30]

Maiatzak 8, 9, 22 eta 23

Ekainak 5 eta 6

ORDUTEGIA

Ostiralak, 16:00-20:00, eta larunbatak, 9:30-13:30.

LEKUA

Aurrez aurreko saioak UEUko ikastetxe nagusian izango dira:

Markeskoa Jauregia,

Otaola Hiribidea, 1,

20600 Eibar, Gipuzkoa.

IKASLE-KOPURUA

Gutxienez 16 ikasle, gehienez ere 25 ikasle.

PREZIOA

Unibertsitate Espezialista (30 ECTS), 1.200 euro, gutxi gorabehera.

Aditu Titulua (18 ECTS, lehen bi moduluak), 720 euro, gutxi gorabehera.

Hona hemen moduluen egitura, moduluko ikasgaiak, kreditu-kopurua eta irakasleak:

Ikasgaia	Ikasgai-mota	Kredituak	Irakaslea(k)
I. MODULUA			
Euskal Kultur Sorkuntza: ibilbide historikoa eta genero-ikuspegiak (10 ECTS)			
Koordinatzailea: Iratxe Retolaza			
Euskal Herriko Mugimendu Feminista	Enborrezkoa	1 ETCS aurrez aurre	Miren Aranguren
Ikerketarako metodologia feministak	Enborrezkoa	1 ETCS aurrez aurre	Marta Luxán
Euskal kultura eta ikerketa antropologiko-feministak	Enborrezkoa	1 ETCS aurrez aurre	Mari Luz Esteban
Arte plastikoak eta genero-ikuspegiak	Enborrezkoa	1 ETCS aurrez aurre	Garazi Ansa Ane Lekuona
Arte eszenikoak Euskal Herrian eta genero-ikuspegiak	Enborrezkoa	1 ETCS aurrez aurre	Arantzazu Fernández
Bertsolaritza eta genero-ikuspegiak	Enborrezkoa	1 ETCS aurrez aurre	Miren Artetxe
Euskal komikia eta genero-ikuspegiak	Enborrezkoa	1 ETCS aurrez aurre	Iratxe Retolaza
Euskal literatura eta genero-ikuspegiak	Enborrezkoa	1 ETCS aurrez aurre	Ibon Egaña
Euskal musika eta genero-ikuspegiak	Enborrezkoa	1 ETCS aurrez aurre	Jokin Azpiazu Leire Lopez Ziluaga
Euskal zinea eta genero-ikuspegiak	Enborrezkoa	1 ETCS aurrez aurre	Iratxe Fresneda
<p>AURKEZPENA</p> <p>Modulu honetan ezagutza feministaz jarduteko oinarriak eta lanabesak landuko dira, eta herrigintzan (Euskal Herriko Mugimendu Feministan) zein esparru akademikoan (Ikerketa Feministen eremuan) azken urteotan egindako ibilbidea zedarrituko da. Oinarri feminista orokor horien ondoren, kultur esparru bakoitzeko aditu eta ikertzaileek esparru horretan Ikerketa Feministek eginiko ekarpenak jorratuko dituzte, eta esparruko erronka feministak identifikatuko dituzte.</p>			
II. MODULUA: Euskal Kultur Sorkuntza eta Kultur Kritika Feminista: lantegia (8 ECTS)			
Koordinatzailea: Iratxe Retolaza			
Kultur Kritika Feministaren oinarriak	Enborrezkoa	0,5 ETCS <i>online</i>	Iratxe Retolaza
Arte-lanak eta Kultur Kritika Feminista	Enborrezkoa	0,5 ETCS <i>online</i>	
Arte eszenikoak eta Kultur Kritika Feminista	Enborrezkoa	1 ETCS <i>online</i>	
Bertsolaritza eta Kultur Kritika Feminista	Enborrezkoa	1 ETCS <i>online</i>	
Euskal komikia eta Kultur Kritika Feminista	Enborrezkoa	1 ETCS <i>online</i>	
Euskal literatura eta Kultur Kritika Feminista	Enborrezkoa	1 ETCS <i>online</i>	
Euskal musika eta Kultur Kritika Feminista	Enborrezkoa	1 ETCS <i>online</i>	
Euskal zinea eta Kultur Kritika Feminista	Enborrezkoa	1 ETCS <i>online</i>	
Euskal Kultur Sorkuntza eta Kultur Kritika Feminista: jardunaldiak	Enborrezkoa	1 ETCS aurrez aurre	Amaia Serrano (koord.) Amaia Alvarez-Uria Iratxe Esparza Vanesa Fernández Agurtzane Intxaurraga Ixar Rozas Josune Muñoz

AURKEZPENA

Modulu honetan Kultur Kritika Feministaren oinarriak eta lanabesak landuko dira. Modulu honetako ikaskuntza-prozesua I. moduluko ibilbidearekin uztartuko da, eta hartara, kultur esparru baten kritika feminista jorratu aurretik, II. modulu honetan esparru bakoitzaren ibilbide historikoaren berri emango zaio ikasleari (bideo laburren bitartez, jarduera dinamikoen bitartez, eta abar). Ondoren, Kultur Kritika Feministaren laguntzaz, kultur adierazpide horien interpretazioa egingo da taldean, modu dialogiko eta parte-hartzailean. Modulu honetan ikasleek astero 3,5 orduz jardun beharko dute *online* lanean, gutxi gorabehera.

III. A. MODULUA (HAUTAZKOA): IKERKETA (6 ECTS) Euskal Kultur Sorkuntza: Kultur Ikerketak eta Ikerketa Feministak Koordinatzailea: Ibon Egaña

Kultur Ikasketak	Hautazkoa	1 ECTS aurrez aurre 1 ECTS <i>online</i>	Ibai Atutxa Ibon Egaña
Ikerketa Feministak	Hautazkoa	1 ECTS aurrez aurre 1 ECTS <i>online</i>	Iratxe Retolaza Ibon Egaña
Queer Ikerketak	Hautazkoa	1 ECTS aurrez aurre 1 ECTS <i>online</i>	Ibon Egaña Ibon Egaña

AURKEZPENA

Modulu honetan Kultur Ikerketa Feministan trebatzeko metodologiak eta lanabesak landuko dira. Besteak beste, honako aldagai hauetan jarriko da arreta: ikerketa-objektu(ar)en hautua, corpusa hautatzeko irizpideak, kultur teoriak eta teoria feministak, kultur metodologiak eta metodologia feministak, eta abar. Horretarako, hiru ikerketa-esparruren ekarpenetan eta korrontetan sakonduko da: Kultur Ikasketetan, Ikerketa Feministetan eta Queer Ikerketetan. Saio presentzialez gain (ikus ordutegi orokorra), saio ez-presentzialak ere izango dira (ikasleek astero 5 orduz jardun beharko dute *online* lanean, gutxi gorabehera).

III. B. MODULUA (HAUTAZKOA): RUDEAKETA (6 ECTS) Euskal Kultur Sorkuntza eta Kultur Kudeaketa: hurbilketak genero-ikuspegitik Koordinatzailea: Haizea Barcenilla

Komunikabideak eta genero-ikuspegia	Hautazkoa	1 ECTS aurrez aurre 1 ECTS <i>online</i>	Arantxa Iturbe Haizea Barcenilla
Kultur programazioa eta genero-ikuspegia	Hautazkoa	1 ECTS aurrez aurre 1 ECTS <i>online</i>	Leire San Martin Haizea Barcenilla
Kultur bitartekaritza eta genero-ikuspegia	Hautazkoa	1 ECTS aurrez aurre 1 ECTS <i>online</i>	Maider Zilbeti Haizea Barcenilla

AURKEZPENA

Modulu honetan kultur kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko estrategiak landuko dira, eta horretarako, kultur komunikazioaren hainbat alderditan jarriko da arreta: sortzaileen

ikusgarritasuna, kultur programazioa, komunikabideetako imajinarioa, kultur erakundeen kudeaketa, eta abar. Kultur kudeaketaren inguruko irizpideak eta ohiturak izango dira hizpide, betiere irizpide eta estrategia feministak diseinatzeko bidean. Saio presentziaz gain (ikus ordutegi orokorra), saio ez-presentzialak ere izango dira (ikasleek astero 5 orduz jardun beharko dute *online* lanean, gutxi gorabehera).

III.C. MODULUA (HAUTAZKOA): IRAKASKUNTZA
Euskal Kultur Sorkuntzaren irakaskuntza Bigarren Hezkuntzan: hurbilketak genero-ikuspegitik
Koordinatzailea: Amaia Serrano

Euskal kulturaren transmisioa genero-ikuspegitik	Hautazkoa	1 ECTS aurrez aurre 1 ECTS <i>online</i>	Ibai Iztueta Amaia Serrano
Kultur Kritika Feminista irakaskuntzan	Hautazkoa	1 ECTS aurrez aurre 1 ECTS <i>online</i>	Eider Rodriguez Amaia Serrano
Diziplinartekotasuna genero-ikuspegitik	Hautazkoa	1 ECTS aurrez aurre 1 ECTS <i>online</i>	Idurre Alonso Haizea Galarraga Amaia Serrano

AURKEZPENA

Modulu honetan batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleei euskal kulturaren transmisioan eragiteko estrategia zehatzak eskainiko zaizkie, betiere genero-ikuspegia zehar-lerro gisa hartuta. Batik bat *Euskara eta Literatura* ikasgaietan euskal kultura eta genero-ikuspegia txertatzea izango du langai moduluak. Era horretara, curriculumean zehazturiko bi printzipio orokor uztartuko dituzte modulu honetako irakaskuntza-egitasmoek eta irakaskuntza-baliabideek: euskal kultura zehar-lerro bilakatzea eta emakume zein gizonen arteko berdintasuna bermatzea. Saio presentziaz gain (ikus ordutegi orokorra), saio ez-presentzialak ere izango dira (ikasleek astero 5 orduz jardun beharko dute *online* lanean, gutxi gorabehera).

IV. MODULUA: AMAIERAKO LANA
Koordinatzaileak: Haizea Barcenilla, Ibon Egaña, Iratxe Retolaza, Amaia Serrano

Amaierako Lana - Ikerketa-lan bat. - Kultur kudeaketarako proiektu bat. - Irakaskuntzarako proposamen bat.	Enborrezkoa	6 ETCS Lan gidatua	Esparruaren eta gaiaren arabera egokituko zaizkie tutoreak ikasleei.
--	-------------	-----------------------	--

AURKEZPENA

Hautazko moduluaren arabera, Graduondoko Amaierako Lana hiru lerro hauetariko batean garatuko da: Ikerketa, Irakaskuntza edo Kudeaketa.

III.A. *Ikerketa modulua* egin dutenek Euskal kulturaren inguruko ikerketa bat egin beharko dute Amaierako Lanean, betiere Genero Ikerketak edo Ikerketa Feministak oinarritzat hartuta.

III.B. *Kudeaketa modulua* egin dutenek kultur kudeaketarako egitasmo bat (erakusketa, kultur ekimen baten antolakuntza, kultur erakunde baterako berdintasun-plana...) osatu beharko dute Amaierako Lanean, betiere genero-ikuspegia zehar-lerrotzat hartuta.

III.C. *Irakaskuntza modulua* egin dutenek irakaskuntza-proiektu edo irakaskuntza-egitasmo bat (unitate didaktikoak, ikastetxe baterako kultur plana...) osatu beharko dute Amaierako Lanean, betiere genero-ikuspegia zehar-lerrotzat hartuta.

Amaierako Lana garatzeko ikasleek 60 lan-orduz jardun beharko dute, gutxi gorabehera. Amaierako Lanak 30 bat orrialde izan beharko ditu, eta ikasleek lanaren ahozko aurkezpena egin beharko dute uztailean, udako jardunaldietan (uztailak 9-10).

MATRIKULAZIO-EGUTEGIA

IZEN-EMATEA: 2019ko apirilaren 15etik ekainaren 5era arte.

ONARTUTAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARATU: 2019ko ekainak 7.

ALEGAZIOAK EGITEKO EPEA: 2019ko ekainaren 10etik 12ra.

ONARTUTAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATU: 2019ko ekainak 14.

MATRIKULA-ALDIA: ekainaren 26tik uztailaren 3ra arte.

IZENA EMATEKO DOKUMENTAZIOA

Izena ematean, honako dokumentazio hau igo behar du ikasleak GAUR aplikaziora:

- NAN dokumentuaren fotokopia.
- Espediente akademikoa.
- Curriculum vitae.
- Aurkezpen gutuna (CVaren dokumentuan txertatu, amaieran; edo helbide honetara bidali, iratxe.retolaza@ehu.eus).

OHARRAK

(1) Hiru dokumentu horiek hautatzean edo garatzean gogoan izan hautatze-prozesuan kontuan hartuko diren irizpideak (ikus hurrengo orrialdean).

(2) Unibertsitate Espezialista Tituluan (30 ECTS) izena ematean, hautazko moduluan zer ibilbide egingo den ere zehaztu behar da (Ikerketa, Irakaskuntza edo Kudeaketa).

IZENA EMATEKO ETA MATRIKULA EGITEKO PROZEDURA: ARGIBIDEAK

Hemen duzu izena emateko prozeduraren berri:

<https://www.ehu.eus/eu/web/titulospropios/izena-emateko-prozedura>

Hemen duzu matrikula egiteko prozeduraren berri:

<https://www.ehu.eus/eu/web/titulospropios/dokumentazioa>

MATRIKULAZIO-PROZESUA: HAUTATZE-IRIZPIDEAK

1. irizpidea. Hautatze-prozesuan, lehen galbahean, Unibertsitate Espezialista tituluan matrikula egin dutenek izango dute lehentasuna. Hortaz, Aditu Titulua egiteko matrikula-eskaerak kontuan hartuko dira, betiere Unibertsitate Espezialista tituluko matrikulak gehienezko ikasle-kopurura (25era) heltzen ez direnean.

2. irizpidea. Berezko Tituluak hiru ikaskuntza-ibilbide eskaintzen ditu (Ikerketa, Irakaskuntza, Kudeaketa). Hautatze-prozesua ikaskuntza-ibilbideka egingo da: batetik, ibilbide batek aurrera egiteko gutxienez 3 ikasle matrikulatu behar dira; bestetik, ibilbide baten gehienezko ikasle-kopurua 9koa izango da.

3. irizpidea. Ikaskuntza-ibilbide batean 9 ikasle baino gehiagok izena eman dutenean, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan hautatze-prozesua egiteko:

3.1. irizpidea. Tituluaren egokitasuna. Giza eta Gizarte Zientzietako gradu edo graduondoko batean titulua izatea, edo genero-ikuspegia/feminismoa berariaz lantzeko graduondokoa izatea, edo kultura berariaz lantzeko graduondokoa izatea (%25).

Tituluaren egokitasuna (gehienez ere 25 puntu)			
Giza eta Gizarte Zientzietako gradua	Giza eta Gizarte Zientzietako graduondokoa	Genero-ikuspegia/feminismoa berariaz lantzeko graduondokoa	Kultura berariaz lantzeko graduondokoa
25 puntu	25 puntu	0,5 puntu ECTS bakoitzeko edo 10 orduko	0,5 puntu ECTS bakoitzeko edo 10 orduko

3.2. irizpidea. Espediente akademikoa. Graduonko espediente akademikoa; edo genero-ikuspegia/feminismoa berariaz lantzeko graduondokoaren espediente akademikoa; edo kultura berariaz lantzeko graduondokoaren espediente akademikoa. Espediente akademiko bakarra hartuko da kontuan, interesatuak hautaturikoa (%25).

Espediente akademikoa (gehienez ere 25 puntu)	
Graduonko espediente akademikoa	Graduondoko espediente akademikoa
Espediente akademikoaren batez bestekoa x 2,5= X puntu	Espediente akademikoaren batez bestekoa x 2,5= X puntu

3.3. irizpidea. Curriculuma. Ikasketaz besteko merituak hartuko dira kontuan atal honetan (lan-esperientzia, argitalpenak, unibertsitateaz besteko formazioa, egonaldiak, practicumak eta abar) (%25).

Curriculuma (gehienez ere 25 puntu)
Lan-esperientzia (gehienez ere 15 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko enplegu-urte bakoitzeko 1 puntu. – Beste edozein enplegutuan, urte bakoitzeko 0,25 puntu.

Argitalpenak (gehienez ere 15 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko argitalpen akademiko bakoitzeko 1 puntu. – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko dibulgazio-argitalpen bakoitzeko 0,25 puntu. – Beste edozein eremutako argitalpen akademiko bakoitzeko 0,25 puntu. – Beste edozein eremutako dibulgazio-argitalpen bakoitzeko 0,10 puntu.
Formazioa, egonaldiak, practicumak (gehienez ere 15 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko unibertsitate-formazioa, 1 ECTSko edo 10 orduko, 0,5 puntu. – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko unibertsitatez kanpoko formazioa, 1 ECTSko edo 10 orduko, 0,15 puntu. – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko hiru hilabeteko egonaldiak, 1 puntu. – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko hilabeteko egonaldiak, 0,25 puntu. – Beste edozein eremutako hiru hilabeteko egonaldiak, 0,15 puntu. – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko hiru hilabeteko practicumak, 1 puntu. – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko hilabeteko practicumak, 0,25 puntu. – Beste edozein eremutako hiru hilabeteko practicumak, 0,15 puntu.

3.4. irizpidea. Aurkezpen-gutuna. Lan-esperientziaz eta formazio akademikoaz besteko merituak hartuko dira kontuan atal honetan (talde feminista edo elkarte feminista bateko kide izatea; genero-ikuspegia txertatzeko jarduera edo ekimenetan parte hartzea; euskara elkarte edo kultur elkarte bateko kide izatea), baita graduondokoan garaturiko ezagutza eremu jakin batean ezartzeko edo garatzeko aukera ere.

Aurkezpen-gutuna (gehienez ere 25 puntu)
Talde edo elkarte feminista (gehienez ere 10 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Talde edo elkarte feminista bateko zuzendaritza-taldeko edo kudeaketa-taldeko kide izandako urte bakoitzeko, 1 puntu. – Talde edo elkarte feminista bateko kide izandako urte bakoitzeko, 0,5 puntu.
Esku-hartze feminista (gehienez ere 10 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Hiru hilabeteko esku-hartze feminista bakoitzeko, 1 puntu. – Hilabeteko esku-hartze feminista bakoitzeko, 0,25 puntu.
Etorkizuneko esku-hartze feministak (gehienez ere 10 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Graduondoko Amaierako Lanaren bitartez esku-hartze feminista eraginkorra gauzatzeko aukera (lantokian, herrian, elkartean, eta abar), 10 puntu.

<ul style="list-style-type: none"> – Graduondoko Amaierako Lanaren bitartez esku-hartze feminista eraginkorra gauzatzeko asmoa (baina, gune zehatz jakin batean kokaturik ez dagoena oraindik), 5 puntu.
Kultur talde edo elkarte, euskara talde edo elkarte (gehienez ere 10 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Kultur talde edo kultur elkarte bateko zuzendaritza-taldeko edo kudeaketa-taldeko kide izandako urte bakoitzeko, 1 puntu. – Euskara talde edo euskara elkarte bateko zuzendaritza-taldeko edo kudeaketa-taldeko kide izandako urte bakoitzeko, 1 puntu. – Kultur talde edo kultur elkarte bateko kide izandako urte bakoitzeko, 0,5 puntu. – Euskara talde edo euskara elkarte bateko kide izandako urte bakoitzeko, 0,5 puntu.
Esku-hartze kulturala (gehienez ere 10 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Hiru hilabeteko esku-hartze kultural bakoitzeko, 1 puntu. – Hilabeteko esku-hartze kultural bakoitzeko, 0,25 puntu.
Etorkizuneko esku-hartze kulturalak (gehienez ere 10 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Graduondoko Amaierako Lanaren bitartez esku-hartze kultural eraginkorra gauzatzeko aukera (lantokian, herrian, elkartean, eta abar), 10 puntu. – Graduondoko Amaierako Lanaren bitartez esku-hartze kultural eraginkorra gauzatzeko asmoa (baina, gune zehatz jakin batean kokaturik ez dagoena oraindik), 5 puntu.

4. irizpidea. Unibertsitate Espezialista titulurako matrikuletan gehienezko ikasle-kopurura (25era) heldu ez bada, Aditu Tituluan izena eman dutenen hautaketa-prozesua honako irizpide hauen arabera egingo da:

4.1. irizpidea. Tituluaren egokitasuna. Giza eta Gizarte Zientzietako gradu batean titulua izatea, edo genero-ikuspegia/feminismoa berariaz lantzeko graduondokoa izatea, edo kultura berariaz lantzeko graduondokoa izatea (%25).

Tituluaren egokitasuna (gehienez ere 25 puntu)			
Giza eta Gizarte Zientzietako gradua	Giza eta Gizarte Zientzietako graduondokoa	Genero-ikuspegia/feminismoa berariaz lantzeko graduondokoa	Kultura berariaz lantzeko graduondokoa
25 puntu	25 puntu	0,5 puntu ECTS bakoitzeko edo 10 orduko	0,5 puntu ECTS bakoitzeko edo 10 orduko

4.2. irizpidea. Espediente akademikoa. Graduon espediente akademikoa; edo genero-ikuspegia/feminismoa berariaz lantzeko graduondokoaren espediente akademikoa; edo kultura berariaz lantzeko graduondokoaren espediente akademikoa. Espediente akademikoa bakarrik hartuko da kontuan, interesatuak hautaturikoa (%25).

Espediente akademikoa (gehienez ere 25 puntu)	
Graduko espediente akademikoa	Graduondoko espediente akademikoa
Espediente akademikokoaren batez bestekoa x 2,5= X puntu	Espediente akademikokoaren batez bestekoa x 2,5= X puntu

4.3. irizpidea. Curriculuma. Ikasketaz besteko merituak hartuko dira kontuan atal honetan (lan-esperientzia, argitalpenak, unibertsitateaz besteko formazioa, egonaldiak, practicumak eta abar) (%25).

Curriculuma (gehienez ere 25 puntu)
Lan-esperientzia (gehienez ere 15 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko enplegu-urte bakoitzeko 1 puntu. – Beste edozein enplegutun, urte bakoitzeko 0,25 puntu.
Argitalpenak (gehienez ere 15 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko argitalpen akademiko bakoitzeko 1 puntu. – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko dibulgazio-argitalpen bakoitzeko 0,25 puntu. – Beste edozein eremutako argitalpen akademiko bakoitzeko 0,25 puntu. – Beste edozein eremutako dibulgazio-argitalpen bakoitzeko 0,10 puntu.
Formazioa, egonaldiak, practicumak (gehienez ere 15 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko unibertsitate-formazioa, 1 ECTSko edo 10 orduko, 0,5 puntu. – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko unibertsitatez kanpoko formazioa, 1 ECTSko edo 10 orduko, 0,15 puntu. – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko hiru hilabeteko egonaldiak, 1 puntu. – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko hilabeteko egonaldiak, 0,25 puntu. – Beste edozein eremutako hiru hilabeteko egonaldiak, 0,15 puntu. – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko hiru hilabeteko practicumak, 1 puntu. – Graduondoko profilekin (feminismoa, kultura, ikerketa, irakaskuntza, kudeaketa) loturiko hilabeteko practicumak, 0,25 puntu. – Beste edozein eremutako hiru hilabeteko practicumak, 0,15 puntu.

4.4. irizpidea. Aurkezpen-gutuna. Lan-esperientziaz eta formazio akademikoaz besteko merituak hartuko dira kontuan atal honetan (talde feminista edo elkarte feminista bateko kide izatea; genero-ikuspegia txertatzeko jarduera edo ekimenetan parte hartzea; euskara elkarte edo kultur elkarte bateko kide izatea), baita graduondokoan garaturiko ezagutza eremu jakin batean ezartzeko edo garatzeko aukera ere.

Aurkezpen-gutuna (gehienez ere 25 puntu)
Talde edo elkarte feminista (gehienez ere 10 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Talde edo elkarte feminista bateko zuzendaritza-taldeko edo kudeaketa-taldeko kide izandako urte bakoitzeko, 1 puntu. – Talde edo elkarte feminista bateko kide izandako urte bakoitzeko, 0,5 puntu.

Esku-hartze feminista (gehienez ere 10 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Hiru hilabeteko esku-hartze feminista bakoitzeko, 1 puntu. – Hilabeteko esku-hartze feminista bakoitzeko, 0,25 puntu.
Etorkizuneko esku-hartze feministak (gehienez ere 10 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Graduondoko Amaierako Lanaren bitartez esku-hartze feminista eraginkorra gauzatzeko aukera (lantokian, herrian, elkartean, eta abar), 10 puntu. – Graduondoko Amaierako Lanaren bitartez esku-hartze feminista eraginkorra gauzatzeko asmoa (baina, gune zehatz jakin batean kokaturik ez dagoena oraindik), 5 puntu.
Kultur talde edo elkartea, euskara talde edo elkartea (gehienez ere 10 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Kultur talde edo kultur elkarte bateko zuzendaritza-taldeko edo kudeaketa-taldeko kide izandako urte bakoitzeko, 1 puntu. – Euskara talde edo euskara elkarte bateko zuzendaritza-taldeko edo kudeaketa-taldeko kide izandako urte bakoitzeko, 1 puntu. – Kultur talde edo kultur elkarte bateko kide izandako urte bakoitzeko, 0,5 puntu. – Euskara talde edo euskara elkarte bateko kide izandako urte bakoitzeko, 0,5 puntu.
Esku-hartze kulturala (gehienez ere 10 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Hiru hilabeteko esku-hartze kultural bakoitzeko, 1 puntu. – Hilabeteko esku-hartze kultural bakoitzeko, 0,25 puntu.
Etorkizuneko esku-hartze kulturalak (gehienez ere 10 puntu)
<ul style="list-style-type: none"> – Graduondoko Amaierako Lanaren bitartez esku-hartze kultural eraginkorra gauzatzeko aukera (lantokian, herrian, elkartean, eta abar), 10 puntu. – Graduondoko Amaierako Lanaren bitartez esku-hartze kultural eraginkorra gauzatzeko asmoa (baina, gune zehatz jakin batean kokaturik ez dagoena oraindik), 5 puntu.